

Jose Martin Bustinza "Tubi" Euskal Herriko txapeldun lasto jaurtitzen

15. orrialdea

Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia mendi-lasterketea martxan

Urriaren 13an Zeanurin jokatu da Euskal Koparen azken proba da "Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia". Gorbeia Suzien taldea eta Joko-Alai kirol alkarteak dira proiektu honen motorra, Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz. Eguzkilore da lasterketearen babesle nagusia. **14. orrialdea**



Hilaren 15ean izango da Areatzako I. Mendi Martxea

17. orrialdea

TOKIKOM

begitu **10** urte

arratia ubide zeberio

169

2012ko urri lehenengoaren 4a
hamabostekaria
www.begitu.org

Artea, MerkArtea eta auzoetako jaiak

Urri lehenengoa jaiak hasten da gurean. Izan be, sanantolinak Zeberion ospatu ditue abuztuaren 30etik hilaren 3ra arte. Hurrengoak Arteako jaiak izango dira, andramariak. Hilaren 8an da Andra Mari eguna.

Bezpera arrastian hasiko dira jaiak eta Anje Duhalderen kontzertua zapatuan eta herri kirolak domekan dira seguru asko jente gehien batuko daben ekitaldiak. Hurrengo zapatuan, hilaren 15ean, merkArtea azokea izango da eta egun horretan, baserriko produkturik onenak erosteko aukerea izateaz gainera, Erramun Martikorena eta Mikel Markezen kontzertuak izango dira iluntzean eta erromeria ondoren.

Auzuneetan be jaiak ospatuz hartu dabe hilea eta San Antolin jaiak Lemoako Lemoatxen eta Dimako Oban ospatu ondoren, Elizondon (Lemoa) ospatuko dabez Andra Mari jaiak. Hemen, andramari bezperako antzerkia, Zeanuriko taldeak aurkeztuko dauan *Hiru apurtuta, bat urrututa* antzezlan eta hurrengo eguneko bertso bazkariak nabarmenduko doguz. Bertsoak botatzen Amets Arzallus eta Unai Iturriaga egongo dira. **5. eta 7. orrialdeak**



Arteako plaza.

ZEANURI

Dror Feiler Zeanurin egon da



Israelen blokeoa apurtzeko nazi-noarteko alkartasuna Gazara eroateko abiatu da "Estelle" itsasontzia. Hau, Askatasun ontzidiaren hirugarren biak da. Arratiako jenteak kolaborau egiten dau honetan eta oraingoan, jentearen babesaz gainera, haziak emon dauz EHNEK Palestinara eroateko. Hau danau prestatzeko Dror Feiler egon zan Zeanurin abuztuaren 5ean. **6. orrialdea**

ZEANURI

Zeanuriko ermitak ezagutzeko martxea hilaren 8an, zapatuz

Hilaren 8an, 07:30ean Ibarreta pelotalekuan daukie zitea Ermiten XXV. martxea egin gura dabenak. Hiru ibilbide dagoz: luzea 38 km.koa, ertaina 28 km.koa eta laburra 15 km.koa. Ibilaldi luzea egiten dabenak hemeretzi ermitaren ingurutik igaroko dira. Zeanurik parroikia bi eta hamazortzi baseleiza ditu. **16. orrialdea**



IGORRE

Barrikuntzak eskoletan

Haur Hezkuntzako sarrerako aterpea eta Lehen Hezkuntzako eraikina eta Haur Hezkuntzako batzean dituan pasabidea egitea, leihoak aldatzea eta gela bat handitzea izan dira Igorreko eskoletan egin diran barrikuntzak ikasturte barriari begira. Lan honek egiteko 337.298 euroko inbersinoa egin dau Udalak. Igorreko Udalak, Guraso Alkarteak eta Eskolako Zuzendaritzak alkarlanean adostu zituen lanok. **7. orrialdea**

E P A
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea, iraila osoa.

Tlfn. 94 456 60 98

Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

KANTU HERRIKOIAK

EZ POZTU NESKATILA

(Jotarako koplak)

Ez poztu neskatila txapel okerrari, astein zazpi zurre zapatuetan bi, domekan okelea auzoan ikusi, ez poztu neskatila txapel okerrari.

Iez eta aurten dira pena neureak nagusi, iez maite ninduenak aurten ez nau nahi ikusi.

Haizeak oriei ikera mendi altuen zuzune, jakiturikan naukazu saldurik narabizune.

Iturria: Patxi Bilbao Etxebarria (Dima 1903-Lemoa 1992).

1987an, Lemoan, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Sasien txori larrosa zeure berbaren donosa, zaldunak euki litzake zeugaz ezkontzeko poza.

Zeuk eder horrek esana ez zagozela neuretzat, maitea eskerrik asko ez nago neu be zeuretzat.

Antoniok euki arren mutil gaztetzat burua, etxean ibita dator Patrizianatxo mantsua.

Joxepa Elorriokoa orain ezkontuta dago, bere senar eder hori korru eskinean dauko, guardasol bi eskuetan ta imbarre eiten deutso.

Joxepa Elorriokoa orain bertsoa behar dau, bere gorputz eder hori ederto mogituten dau.

Joxepak etxerantzian senarrari esan dautso, Antonioren bertsuekaz zeruan sarturik nago.

Pandero honen narrie dana da ardi narrie, fraile bati kosta jako sermoia on baten dirue.

Neure maitea badoia bihar edo etzi soldadu, ez ei dau joan gure baina eroango daurie seguru.

Ai, zuri-zuri, atorra zuri, erakutsi bai, emon ez niri.

Ez poztu neskatila

Ez poz-tu nes-ka-ti-la txap-el o-ke-rra-ri,
 as-le-an zaz-pi zu-rra za-pa-bu-e-tan bi,
 Do-me-kan o-ke-le-n au-zo-an i-ku-si,
 ez poz-tu nes-ka-ti-la txap-el o-ke-rra-ri.
 I-e-zik e-ta-ur-ten di-ra, I-e-zik
 e-ta-ur-ten di-ra, pe-na neu-re-ak na-
 gu-si, i-az mai-te nin-du-e nak-
 aur-ten ez nau nahi i-ku-si, I-e-zik e-ta-ur-ten
 di-ra, aur-ten ez nau nahi i-ku-si.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

Urri lehenengoaren 3tik 9ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 10etik 16ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bilbao Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.com

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Cristina Ruiz eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julien Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Aurrekontu parte hartzaileak pausoz pauso

Aurten be bagoaz, Garbe-Mikele, San Juan, Erdigunea-Olabarri, San Kristobal, Gezala-Basauntz, eta Urkuzu-Garakoi auzoetatik egingo dogu ibilaldia. Berbea zeuri emotea gura dogu, esateko dozuna entzutea. Guk apuntau egingo dogu, aztertu eta gero alderdi politiko eta herritarren artean berbok ekintza bihurtzeko ahalegina egingo dogu, epeak eta kopuruak zehaztuz.

Gidatzen dodan lantalde honentzat herriak agintzen daualako. Herria... kirol talderen baten sugerentziak, norbanakoaren etxebizitza pareko arazoak, hobetzeko diran kritikak, urtebetean egin doguzan akatsak, danak dira onartu beharrekoak.

Entzuteaz aparte, igaztik hona egindakoaren barri emongo dogu, arlo zein auzo desbardinetan. Igazko batzarretan jaso eta egin ez dogunaren inguruan azalpenak emongo doguz batzarretan, bertatik bertara. Gardentasuna eta hartu-emon zuzena herritarraz. Hauteskunde programan esaten genduan moduan "Udalak gardena izan behar dau, herritarrai barruan egiten dana erakusteko". Bertan jasoten da zelangor gorrer gura dogun, zeren alde egiten dogun apostu, inbersino sozialen garrantzia, bardintasuna, jaiak, kultura eta kirola, alkartegin-

tzea... Personen alde egitea, berba bitan.

Danok daukagu zer esana. Horregaitik igorretarrak animau gurako gendukez aurrekontu parte-hartzaileetako batzarretan parte hartzera eta beste udal eta alkateak, aurrekontuak modu parte-hartzailean egitera (batzuek egiten dabe honezkero), herria(k) danon ekarpenagaz eregiten joateko.

BEINAT ANZOLA
IGORREKO ALKATEA

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kanpoztar



Jaioterria itxi eta beste alde batera etorri beharra daukienai kanpoztar esaten jakie. Bada, bertako biztanleari barik kanpokoa danari. Batuan atzeritar, arrotz, erbestear edo etorkin be esaten jakie. Arratian kanpoztarra (kámpostarra), kanpotarra (kámpotarra), kanpokoa (kámpekkoa), kanpoztanua (kampostanúe) eta kanpojentea (kámpojentea) berbak erabilten dira.

Deigarria da jatorria adierazoteko, jentilizioetan, hau da, non jaiota edo non bizi dan esateko erabilten dan -ztar atzizkia (-ar/dar/-tar atzizkien parekoa da). Esate baterako, bediaztar, zeanuriztar... edo gaurko berbea, kanpoztar.

ERETXIA

Danon olinpiadak

U rte olinpikoa izan dogu aurtengoa, eta, kirola egitea edo, ezpabere, ikustea gustetan jatzuenoi, asetuta geldituko zinien, beti egoalako ze ikusi. Ederra da gero, hareek mobimentuak, birak, ariketak, abiadura, indarra ikustea, ez sinistekoa dalako bai emakumeak bai gizonak zelako esfortzu handia egiten daben horreek danok gauzatzeko. Benetan txalotu eta aitortzekoa.

Gainera, olinpiadak, inoiz baino konpletuagoak izan dira, andren partaidetzea % 46koa izan dalako, eta, delegazino guztietan andrak (edo andra bat) egon diralako. Ez dago txarto, astiro baina aurrerantza goaz.

Kirolean, gainerako arlo publikoetan moduan, gatxa da andrak parte hartutea, zer esanik ez eliteko kirolean, goi mailako kirola sano eremu maskulinoa dalako.

Izan be, andrak esfortzu bikotxa egin behar izan dabe olinpiadetan parte hartzeako: batetik esfortzu fisikoa, kirolari lotutakoa, eta bestetik, desbardinatasunak sortutako oztopoak gainditzeko esfortzu fisiko eta psikikoa, egindako behar guztia inbisibilizau, azpibalarau eta barregarri egiten dalako. Eta ez dago eskubiderik.

Halanda be, aurrera egin dabe, eta, apurka-apurka, parte hartzea handitzen joan da, androk ez dabelako etsi, gainean egon diralako, kostu personal ederragaz, baina hantxe, aldarrikatzen, eten barik, berez ez dalako ezer lortzean, ekinez baino.

Batzuetan, pentsau geinke, nik neuk pentsau izan dot, andren partaidetzea txikia izan dala andrarak ez dalako egon. Baina ez, ez da holan izan, egon egon dira, baina baztertu egin izan dabez, goi mailako kirola, jarduera fisikoa ez dalakoan androntzat ona. Zertzuk entzun behar doguzan, gure aurreko andrak, eta gaur egungo



MIREN URRESTI

Arratiako Udalen
Mankomunitateko Bardintasun
Teknikaria

askok be, behar fisikoa baino besterik egin ez dabenean, baserrian, etxean, fabriketan...

Andron eta gizonon arteko alde biologiko txikietan oinarritu eta hain desbardinatasun handiak sortzea astakeria handia da, baina, zoritxarrez, gaur egun be indar handia daukan idea faltsua da.

Horren adibide garbia dira egunero emakume kirolariak bizi dabean desbardinatasunak kirola egiteko orduan: ordutegirik txarrena, kirol ekipamentuetan aldagarrik ez, lortutakoak kontuan hartu ez... eta barriro dinot ez dagoala eskubiderik, esfortzua esfortzua dalako, eta kantsagarria dalako esfortzu bikotxa egiten jarraitzea, emakumeok ez dogulako gura superwoman izan, aukera bardinak izatea baino, ez gehiago, ez gitxiago, parekoak.

Arratiako Udalen Mankomunitatean oraintxe gabiz bardintasun plana prepetetan, egoerearen diagnostikoa egiten, eta kirol arloa be aztertuko dogu, zelan ez, kirola ezinbestekoa dalako androk eta gizonak garatu, nortu eta hezteko. Eta parekotasunean, bardintasunean egitea lortu behar dogu, danon kirola izateko, danon olinpiadak izateko, ze andrazkoen partaidetzarik ez badago, ez da danona, batzuen baino.

Andrazkoa eta kirolaren gainean informazino gehiago gura badozue, Matilde Fontecha eta Ainhoa Azurmendiren beharrak dozuez interneten, googlen sartu izenok eta zuzeneko loturak agertuko jatzuez. Benetan gomendagarriak.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Torrea Iuzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Euskeraz
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



MAITE ARTABE

Bizitzaren
magia

Abuztuaren 5ean San Justora joan ginan. Leku magikotzat daukat nik hori. Biztugarritzat.

Esango neuke hori dala bertan nabarmen egiten dabelako bat natureak eta kultureak.

Gogoangarriak dira bertako haretx altu eta gerizpetsuak eta goroldiozko alfonbra bigun gustosoa; alfonbran, barriz, beti deigarri perretxiko koloretsuak.

Era berean kulturea borborka dago: karobian, ermitan, iturrian, mahaietan, bolalekuan... Esan gura dot kultura ezinbesteko giza espresino moduan; hauxe egin dau hemengo jenteak, zelako lana, plazerra, desioa, bizitza! esateko modua dan aldetik.

Txikitan Justo eta Pastor ume santuai ilun, triste, eristen neutsen, heriotzeagaz lotuak; ermita horretan, oster, argi eta pozgarri ageri jatazan; inguruak

laguntzen dau horretan baina, batez be, pentsau neban, Zea-nuriko andraren batek dotorezia xumeagaz ezarritako hortensien ikutu magikoa martiriak be pizteko kapaz da. Benetan be, hortensia eta txistu doinu alaiz inguratutik, heriotzearen bila baino gehiago emoten eben bizitzaren magiaren bila joiatzala.

Naturak, kulturak, espiritualetan... arpegikuneak Bitoriano Gandiaga dakarzte burura:

*Egun bakoitza
dohain berri bezala hartu
ahalbide berriz zabaltzen den
zabalduz doan mirarizko jauregi
edo
paraje zoragarri bezala.*

Euriak ez dau amatetan karobiko sua dinosku Urutxurtuk eta globalizazioak be ez San Justoko magia, neure artean.

Busti-busti eginda bueltau ginan kale artera: euriagaz bezanbat magiagaz.

ZERTZEAN



CRISTINA RUIZ

Arpeikoa

Di-da, eta lehenengo egunaren akordua etorri jakon burura. Orduan, ulertu gura izan eban, argitu. Sinistu gura izan eban txarto ulertzea zala nahasmen haren guztiaren arduradun, beste errudunik ez egoala, begirada erratuaren berotan esandako berba hutsalak baino.

Alkondara baltzarena gertatu zan egun haretan, Adolfo Domínguez en erositako alkondara modernoa, estua, elegantea. Segiduan dendariaren begietan ikusi eban, ispiluan baino arinago, trapu garestiak sorbaldak goratu eta gorpuzkera edertuten eutsola. Uxala bera izan balitz begirada

horretaz jabetu zan bakarra... Halan be, arrazoa galtzea baegoala pentsau gura izan eban orduan.

Buruak denporan salto, eta Hendaian hurbildu jakon frantses txontxorragaz diskutidan egin ebenean sentidutako lotsa berbizi eban. Ostean, kotxean, erretolikearen ondorengo isilune luzean, bere barnean nahiko argi eukan berak ez ebal ezer txarrik egin, baina barrero be ez ebal egingo ebatzi eban akabuan.

Hirugarren golpea saihestuteko denporaz bueltau zan bere onera. Altxau zan, itzal luzeko epotxaren eskua ondino airean txistuka egoala, eta alde egin eban, bere atzean atea betiko itxirik.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Arcachonen (Frantzia) ateratako argazki hau bialdu deusku Ibon Izak, jatorkuzan sasoi latzen aurrean mezu baikorra emonaz.

Zisnea amodioaren ikurra da; erosketak egiteko burditxoa, barriz, konsumismoarena. Argazki honetan putzuaren ondoan datza burditxoak, ur gainean barriz, dago zisnea dotore eta errez mobiduten. Gaztelaniazko esaera batek zera dino: *Cuando la pobreza entra por la puerta el amor salta por la ventana*, baina Izak bialdutako argazkiak kontrakoa esaten deusku: amodioak pobrezia gainetik uger egiteko ahalmena daukala, hain zuzen be.

Niri neuri baikoragoa eta demokratikoagoa irudituko litxakit amodioaren ikurra baino, adiskidetasunarena egongo balitz. Izan be, amodio adiskidetasuna baino urriagoa da, eskasagoa, eta adiskidetasunak be emoten dauz sasoi latzetan ur gainean ibilteko ahalmena eta baliabideak. Baina dana ezin da euki eta perfekziorik ez dago. Bersino erromantikoagaz konformauko gara.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Marina Urigoitia Aldekoa, 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARTEA

Anje Duhalde jaietan

Hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe Artean herriko jaiak ospatuteko.



Anje Duhalde.

Erredakzinoa

Zapatuan, Andra Mari egunean, euskal musikan hain itzal handia daukan Anje Duhaldek emongo dau kontzertua bederatzi t'erdietan. Hurrengo egunean, barriz, herri kirolak izango dabe protagonismo osoa. Izan be, aizkolariak, trontzalariak eta harrijasotzaileak erakutsiko dabe euren lana Arteako plazan.

Urri lehenengoak 7, barikua
17:30ean, txupina, buruhandiak eta trikitixea.
18:00etan, haur parkea.
20:30ean, taloa, txorizoa eta urdaia plazan.
22:00etan jantzaldia Izargi taldeagaz.
22:30ean, umeen play-backa.

Urri lehenengoak 8, zapatua
11:00etan, haur parkea.
12:00etan, mezea.

13:00etan, kalejirea trikitixegaz.
14:00etan, tortilla txapelketa eta bazkaria plazan.
17:00etan, kanta herrikoiak.
21:30ean, Anje Duhalderen kontzertua.
23:00etan, berbenea Akerbeltz taldeagaz.
Mozorro gaua: lanbideak.

Urri lehenengoak 9, domekea
12:30ean, herri kirolak:
Aizkolariak: Iñaki Azurmendi, Euskadiko txapelduna eta Aitzol Atutxa Bizkaiko txapelduna.
Motozerra eta trontzan: Larreatarrak.
Harrijasotzaileak: Zelai IV eta Urdax Magunazelaia.
17:30ean, Mus eta Briska txapelketa.
18:00etan, pailazoak.
20:00etan, jantzaldia Jokaldi taldeagaz.
21:00etan txokolatea plazan.

ARTEA

Kalidatea dauka helburu MerkArtea azokak

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 15ean, MerkArtea XIX. Janari eta Artisanu Azokoa izango dogu. Bertara ekarriko dabe Bizkaiko ekoizleak euren produkturik onenak. Izan be, hori bermatzeko baldintza zorrotzak ipinten deutsez Udalak parte hartzailei. Holan, artisauroko nekazaritza ustiategiak bakarrik hartuko dabe parte eta ez beste mota batzuetako industriak, hau da, salmenta masifikauak egiten dabena; txakolinak, Bizkaiko Txakolina Jatorri izena izan behar dau; eztiak, Euskal Kalitate-Labela euki behar dau eta gaztaia Idiazabal jatorri izenokoa izango da.

Kalidatea bermatuta, produktuok modu erakargarrian erakustea komenidu da. Erakusteko itxurea jagoteko, *stand* lehiaketea antolatu dau Udalak eta standen dekorazinoa eta eskulangileen janzkera sarituko da. Holan, publikoarentzat gozagarria izatea eta Bizkaiko baserriko produktuan salmentak bultzatzea espero dabe antolaztaileak eta parte hartzaileak.

Goizeko hamarretatik arrastiko hirurak arte izango da azokoa, baina ez da izango egun horretako ospakizun bakarra. Izan

be, bederatzi t'erdietan Mikel Markez eta Erramun Martikorena entzuteko aukerea egongo

da plazan. Eta ondoren, gaueko hamaiketan, erromeria Aire Aire taldeagaz.



MerkArtea hilaren 15ean izango da.

IGORRE

Aterpea eta pasabidea egin dabez eskoletan

Erredakzinoa

Udalak hainbat barrikuntza egin dauz eskoletan. Haur Hezkuntzako eraikinaren sarreran umeen jolas lekua estaliko dauan aterpea ereigi da, Lehen Hezkuntzako eraikina eta Haur Hezkuntzako batzean dituan pasarela bat be egin dabe, leiho barriak ipini, gela bat gehiago atera eta Haur Eskolan modulo barri bat ipini da. Lan honek egiteko 337.298 euroko inbersinoa egin dau Udalak.

"Igorreko Udalak, Guraso Alkar-teak eta Eskolako Zuzendaritza onartu eta alkarlanean landutako proiektua zan aterpea. Haur Hezkuntzako eraikinaren sarreran ereigi da umeen jolas lekua estaliko dauan aterpea. Modu honetan, orain arte euki ez dauan legorra ipini da eta euria egin ezker, olgetako lekua izango dabe umeak" azaldu deusie begituri udaletik. Gainera, Lehen Hezkuntzako eraikina eta Haur Hezkuntzako batzean dituan pasarela bat be ereigi da,

2,50 metroko zabalera daukana. Berogailutan aurrezteko eta kanpotik zarata gitxiago sartzeko leiho barriak ipini dabez Igorreko eskoletan. Eta gela bat be handitu egin dabe. "Zentroko Zuzendaritza udalari helarazo eutsan ikasleai laguntza berezia emoteko gelak eukan 36 m²-ko azalera ez zala nahikoa jarduna egoki egiteko.

Hori dala eta, aitatutako gelearen azalera bikoteko azterketa bat egiteko eskaerea egin eban. Ge-laren ondoan 6x6 metroko altuera bikoteko argi-patio txiki bat egoan. Argi-patio hori estali eta patioa eta gela batu egin dira aurtengo ikas-turtean erabili ahal izateko".

Azkenik, Haur Eskolan modulo barri bat be ipini da.



Escoletako pasabide barria.

ARTEA **Arteako Udalak**

Gora Andra Mariak!

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ**

ZEANURI

Gazara arratiarren alkartasuna daroa "Estelle" itsasontziak

Erredakzinoa

Gazarako bidean da Askatasun Ontzidiako "Estelle" itsasontzia. Israelen blokeoa apurtu eta laguntza humanitarioa erroteko atondu da ontzidi hau. Abuztuaren 30ean Bermeoko portutik urten zan, beste gauza batzuen artean, EHNEK emondako haziak Gazako errefujiaren artean bananduteko. Han ereingo dira Arratiako baseritaren solidaridadearen haziak.

Eskandinaviatik abiatu zan "Estelle" itsasontzia, eta Bizkaira, hau da, Bermeora etorri aurretik Donostian egon zan. Orain, Mediterraneorantza abiatu da, Bartzelonan eta Frantzia geldialdiak egin eta Italiara joateko. Handik Palestinara joango da. Ontzi-

diaren hirugarren biajea da hau. "Estelle" itsasontzia Donostian egon zanean, Arteako Imanol Agirre pelotaria ontziratu zan Donostia-Bermeo travesia egiteko. Izan be, Arteakoa maiatzean egon zan Gazako errefujiaren eremuan eta ontzidiaren



"Estelle" itsasontzia Donostian.

egitekoa zabaltzen lagundu gura izan dau. Oraingo biajea be arratiarren kolaborazinoa izan dau ekimen honek. EHNEK Gazara erroteko haziak, eta bidean konsumiduteko barazkiak eta ogia emon ditu.

Dror Feiler Zeanurín

Hau prestatzeko Dror Feiler ontzidiaren koordinatzailea Zeanurín egon zan abuztuaren 5ean. Zeanuriko heritarak ondo-etorria egin eutsien auresku bategaz eta ostean berak hartu eban berbea eskerak emoteko.

Dror Feiler (Tel Aviv 1951) Israelgo armadakoa izan zan 1970. hamarkadan eta gaur egun Gazako palestinarri laguntzeko eratu dan Askatasun Ontzidiaren kapitaina da.

IGORRE

Arratia motor taldearen XI. Konzentrazinoa

Erredakzinoa

Hilaren 9an, Arratiako Motor Taldeak errotutako XI. Konzentrazinoa egingo dabe motorzaleak Igorren. Antolatzaileak 150 kamiseta bananduko ditue parte hartzaileen artean eta gero, 11:00etan, Arratian zeharreko ibilbideari ekingo deustie. Motordunak, paseoa disfrutazeaz gainera gelditu be egingo dira pintxoak jateko. Eta bueltea amaitutakoan, ordu biak aldera, parrilladea egongo da Igorreko Donibane tabernan parte hartzaileentzat.



IGORRE

Perez de Anuzita Murciako kartzelara eroan dabe

Erredakzinoa

Eduardo Perez de Anuzita preso igorreztarra Picassentetik Murciako kartzelara eroan dabe. Perez de Anuzitak Valentiako Picassenteko kartzelako istiluen ostean, garagarriaren 17an hasitako gose grebea egun bi beranduago itxi eban.


Perez de Anuzitak ezarri eutsien kondanaren hiru laurdenak bete zuten 2008an, eta indarrean dagoan legearen arabera, kalean egon beharko litzatekela dinoe Herrirakoak.

AREATZA

Ikuskizun koloretsua Astondoak

Erredakzinoa

Astondoa pirotekniaren gau suak hasiera-haiseratik egon dira Bilboko Aste Nagusian eta aurten be, eskeini eben euren erakustaldia abuztuaren 25ean, zapa-turik jentetsuenean. Arratiakoak ez eben parte hartu lehiaketan,



Astondoaren suak.

Argazkia: Clara Luja.

erakusketan baino. Ha ta guzti be, ikuskizun koloretsua eta erritmo onekoa, jentearen gustokoa eskei-

ni eben. Euro Bengale Frantziako piroteknia etxeak irabazi dau aurtengo lehiaketa.

DIMA

Udalak diruz lagunduko dau BEGITU

Erredakzinoa

Dimako Udalak BEGITU diru laguntzea emotea ebatzi eban garagarriaren 23ko osoko bilkuran. Holan, udalak "egoera ekonomikoak behartuta herriko alkarte guztiai diru laguntzea murriztu behar izan badeustie be, ikusita BEGITUK Arratia aldean egiten dauan beharra, herritarrek emoten deustien balorazino ona eta irakurteko erakusten daben interesa, aurrerantzean diru-laguntzea emoteko ebatzia hartu dau" azaldu deutso BEGITU Dimako Bilduk. BEGITURA bialdutako adierazpen horreetan, Dimako Bilduk udalari aurrerantzean be ahalegin hori egiten segidu daian eskatzen deutso eta BEGITU eskerrak emoten deustaz "gure herria beti kontuan izanagaitik".

Dimakoagaz sei dira BEGITU lagunduten deustien Arratiako udalak: Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeberio, hain zuzen be eta laguntza honeek BEGITUREN aurrekontuaren % 12a suposatuten dabe.

ZEANURI

Zeanuriko gazte bat hil egin da auto istripu baten

Erredakzinoa

Abuztuaren 26an gertatu zan istripua Areatzan, Arratiano jatetxearen inguruan. Eusko Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazo dauanaren arabera, amak gidatzen eban autoa kaminitik urten eta irauli egin zan ezagutzen ez diran arrazoiakaitik. Z.G.B. 16 urteko neskatxia autoan harrapatuta geratu zan eta suhiltzaileak atera ebenerako hilda egoan eta medikuak ezin izan eben ezer egin haren bizia salbetako. Ama-alabak Zeanurikoak dira. Amak ez eban zauri larririk izan, baina laguntza psikologikoa behar izan eban.

URRI LEHENENGOAK 9. BILBAURREKOS 19 COETAN LABORTE ERROTAN

IRATI ASTONDOA ETA IRATI BERNARDO (HERRITARREK)
MAIOLAN ETXEBARRIA ETA MAIOLAN MADARIAGA (HERRITARREK)
JON ELAETURRIAGA ETA JOSE MARI FERNANDEZ (MOTOR TALDEA)

OHANE SOLIAGA ETA MIKEL INTXAURBE (MUSIKA ESKOLA)
SALDOR OUBERES ETA SAIDA LARREA (BILBAO KULTUR ELKARTEA)
ANE LEKUE ETA IRATI ETXEBARRIA (HERRITARREK)

ANE SOLANOTXA ETA EKNI ZIBRUSTA (HERRITARREK)
MAIOLAN BARRIBERDIA ETA MAIOLAN BUDA (HERRITARREK)
JOR DEL OLMO ETA JOSEBA SANCHEZ (HERRITARREK)

Igorreko Udala

L. MIHI LUZE TXAPELKETA IGORREN

MHLZ

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktioak

- Txerriak
- Odoletzak
- Besturzak
- Salbitzak
- Harbuzgarak

Arratiako produktioak

- Baserriak
- Odoletzak
- Baserri arnauak
- Txerriak
- Harbuzgarak
- Geroak fruta eta herrixkak

Merka Labela Harategia
 Lehenengo Aste Nagusia
 94 431 43 28

ARRATIA

Andramari jaiak ospatuko dabez Elizondokoak Lemoan

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren lehenengo hamabostaldian San Antolin izan dogu hilaren 2an eta Andra Mari hilaren 8an izango da. San Antolin eguna Lemoako Lemoatx eta Dimako Oba auzuneetan ospatu da. Oban lau egun iraun dabe jaiok eta kirola izan da protagonista: zapatuan krono eskaladea eta bola txapelketea egon zan eta domekan krosa eta bola txapelketearen finala, beste gauza askoren artean.

Lemoatxan be ospatu dabe San Antolin eguna San Antolin ermitearen inguruan. Baba lehiaketeak eta erromeriak ipini dabe jai giroa mendi inguru honetan.

Hilaren 8an, Andra Mari ospatuko dabe Lemoako Elizondon, baina ospakizunak bezperan ha-

siko dira.

Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa) Urri lehenengoak 7, barikua 20:00etan, Lemoako Korralak antolatuta kantu-pote Elizondotik. **22:00**etan, Zeani taldeak *Hiru apurtuta, bat urrututa* antzezlan aurkeztuko dau Elizondon.

Urri lehenengoak 8, zapatua 12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan.

13:00etan, triki poteoa.

14:30ean, bertso bazkaria. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Amets Arzallus.

17:30ean, umeentzako jolas eta tailerrak Zastaparrak taldeak antolatuta.

18:30ean, poteo musikatua Oxabi taldeagaz.

EGITARAUA	
12:00 MEZA NAGUSIA Andra Mari elizan	
13:00 TRIKI POTEOA Jubilatuaren tabernatik	
14:30 BERTSO BAZKARIA UNAI ITURRIAGA AMETS ARZALLUS Eguraldi txarra bada, kiroldegian izango da	
Oharra: Tiketak: umeak 6€/nagusiak 8€ Udaletxean salgai abuztuaren 20tik 31ra arte Zelakoentzat ere bai Barazkijaleentzako menu berezia	
17:30 HAURRENTZAKO JOLAS ETA TAILERRAK Zastaparrak taldeak antolatuta Elizondon	
18:30 Elizondo plazatik POTEO MUSIKATUA	

Urri lehenengoaren 8ko egitaraua.

IGORRE

Ugerlekuetako sorosleen beharra errezteko lanak egin ditue kiroldegian

Erredakzinoa

Abuztuaren hirugarren astean ugerlekuetako lanak eta mantentmentuko beste lan batzuk egin ebezan Igorreko Udalak, eta zarratuta egon zan kiroldegia aste horretan. Ugerlekuetan sorosleen lekua aldatu da eta biltegi bat egin da materialak gordetzeko.

"Ugerlekuaren aurrealdean kokatu da soroslearen atsedean gunea eta larrialdietako botikina, sorosleak ikusgaitasun handiagoa izateko eta irisgarritasuna hobetuteko" jakinarazo dabe Udaletik.

Biltegi bat be egin da ugerlekuaren ondoan, ikastaroetan erabilten diran euskarriak gordetzeko.

IGORRE

Lehia gogorra Igorreko Mihiluze txapelketan

Mihiluze txapelketearen finalaurrekoa, urri lehenengoaren 8an izango da, zapatua, 18:00etan, Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Oraingo honetan be lehia bizia izango da, hemendik "Inbiu" egunean ospatuko dan final handira pasauko dira-eta bikote irabazleak.



Irati Bernaola eta Irati Astondoa Mihiluzen.

Erredakzinoa

Baina egun handia heldu baino lehen, tribuaren berbak, esamesak, erogifikoak, imihintzioka eta potokumeak probetan daukien abilezia erakutsi beharko dabe saillakutakoak. Kanporaketetan ederto ibili dira arratierazko berben

ordainak asmatzen eta skl tfngz dkin abileza erkstn. Herritar solteak eta alkarteetako ordezkariak ibili dira alkarren artean lehiatzen eta heritarrak nagusitu badira be, 3 alkartek lortu dabe finalaurrekora heltzea: Motor taldeak, Arratiako Musika Eskolak eta Axular Kultur Alkartek, hain zuzen be. Herrita-

ARRATIA

Arratiar gehienak ez dira herritik mobiduten astegoieneko gauetan

Erredakzinoa

BEGITUK egindako inkesteari erantzuen deusien arratiar gehienak ez dira euren herrietatik urteten (% 72,73) astegoieneko gau errondea egiteko. Arratiako beste herri batera % 18,18 joaten da eta Arratiatik kanpo % 9,09 bakarrik. Honeek dira, behintzat, inkesta honetan jasotako emoitzak. Dana dala, erantzun honek balio testimoniala baino ez daukie, lagina sano txikerra da eta. Izan be, guztira 11 erantzun

jaso ditu itaunak.

BEGITUK begitu.org webgunean hilean hilean itaun bat ipinten dau arratiarren zaletasunak eta kezak hobeto ezagututeko.

Hileon, arratiarren ikasteko zaletasunaren barri jakin gura dau BEGITUK eta hauxe da gure webgunean topauko dozuen itauna: Ikastaroren baten emongo dozu izena 2012-2013 ikasturtean?

ARRATIA

Urtxintxa eskolan matrikulazinoa zabalik

Erredakzinoa

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak hartu-

rak gazteagoak dira, 18 urte ingurukoak, alkarteetakoak adinean nagusiagoak. Ikusiko dogu, bada, nortzuk pasatzen diran Inbiu eguneko final handira.

"Inbiu" euskerearen jaialdia

Urri lehenengoaren 22an ospatuko da aurton 10. Inbiu jaialdia eta "euskeraz bizi gura dot" izango da aldarrikapena. Amaia Arauzo Igorreko euskera tenikariaren esanetan, "euskeraz biziteko gogo aldarrikatu gura da, inori itxaron barik, pasibidadea alde batera itxi eta aktibotasuna eskatzeko. Izan be, urteak daroaguz euskerearen alde egoten, eta ordua da euskeraz biziten hasteko". Hori guztia jai giroan ospatuko da eta egitaraua adin guztietako heritarrak begira antolatu dabe. Eguraldiak ahalbidetzen badau, jaialdia kultur etxeko Lasarte plazan izango da, euria egin ezker, eskolako aterpean.

Egitaraua

10:30 trikitaliak herritik zehar.
11:00 umeentzako jolasak eta institutuko grafia.
12:00 Mihiluze final handia.
13:00 kopautxoak.
Horren ostean herri bazkaria. Bakotxak etetik eroango dau jana. Udalak plantxak ipiniko dauz bertan jana prestatu gura dauanarentzat eta mahaia eta aulkia egongo dira danontzat. Gerizpea gura dauan eron dagiala eguzkitakoa.
17:00 "Euskeraz bizi gura dot" argazki kolektiboa Lasarte plazan.
17:30 Kontzertua eta erromeria AMEK antolatuta. Taldeak: Irtenbide eta Dangiliske.
20:00 Txokolatea danontzat, Beinke! merkatarien euskera taldearen eskutik.

emon berezia dauka Arratiagaz. Ez bakarrik asko izan diralako bertan trebatu diran Arratiako hezitzaileak, baita be hainbat proiektutan alkarlana egin dabelako: *Egunon printzesa!* filman, barbarako. Eskola honek 2012-2013 ikasturterako ikastaro ugari antolatu ditu eta matrikulazino epea zabalik dago.

Ikastarook honeek dira: Astialdiko begirale, Astialdiko zuzendaria, Jendarte kultur dinamizatzaile, Hezikidetzan aditua, Kulturarteko hezikuntzan aditua, Heziketa premia bereziak astialdian eta Partehartzea bultzatzeko teknikak. Gainera, ikastaro laburrak egiteko aukera be badago: Feminismoak historian zehar, Kulturartean igeri egin nahi dut!, Kontu kontari bizitzaren hari, Gorputz adierazpena: harreman eta komunikazio bide bat, Emakume etorkinak: bazterketa bikoitza eta Nola hitz egin sexualitateaz haur eta gaztetxoekin.

1936KO GERREAREN 75. URTEURRENA (IV)

1937ko arratiar ume erbesteratuak

1936 eta 1939 urteen artean luzatu zan Gerra Zibileko historiaren atal garratz, triste eta hunkigarrietakoa umeen erbesteratzea izan zan. Aurten bete da erbesteratze horreen 75. urteurrena.

Jon Uruxurtu

Ebakuazioak 1936an hasi ziran, eta 1937ko maiatzara arte inolako kontrolik bakoak izan baziran, momentu horretatik aurrera Eusko Jaurlaritzaren antolaketa eta zuzendaritzapean burutu ziran.

1937ko udabariaren etorre-agaz batera, Mola jeneralak zuzendutako iparraldeko kanpainari hasikerea emon eutsien nazionalak, Bizkaiaren aurkako eraso gogorak aginduz. Holan, martiaren 31n Otxandio eta Durango bonbardatu ebezan, eta apirilaren lehen egunetan Arratiako herriak be bonben ondorioak jasan ebezan.

Bonbardaketa gogor eta iraunkorren ondorioz, maiatzaren lehen egunetan, erbestera aldegitak ugaritu egin ziran. Gregorio Arrien pasinotarrak *Niños Vascos Evacuados en 1937* liburuan dinoanez, "maiatzaren 7tik bagilearen 12ra bitartean izan ziran Frantzia, Britainia Handia, Belgika eta Sobietar Batasunerantza egin ziran umeen erbesteratzerik handienak. Eusko agintarien esku egozan hogeita hamarren bat itsasontzitan egin ziran aldegitok, guztira hirurogei osteratik gora osotuz. (...) Osterarik gehien egin ebezan itsasontziak Habana eta Goizeko Izarra izan ziran".

Zeanuri eta Igorreko umeak
Ebakuauen artean, arratiar umeak be egon ziran eta adibide legez, sei umeren barri emongo da jarraian datozan lerroetan: Alex Mendibil(+), Mikel, Arantza eta Elisabete (+) Goikoetxea zeanuriztarrak, eta Mertxe, Manolo (+) eta Ruperto Fernandez Gurtubai Igorreko neba-arrebak.

Ebakuauen artean arratiar umeak be egon ziran. Alex Mendibil, Mikel, Arantza eta Elisabete zeanuriztarrak eta Mertxe, Manolo eta Ruperto Fernandez Gurtubai igorreztarrak berbarako



Mertxe, Ruperto eta Manolo Nieves euren amagaz Frantzian.

Argazkia: Mertxe Fernandez artxiboa.

Azken honeek Nieves Gurtubai, euren amagaz batera joan ziran.

Alex, Mikel, Arantza eta Elisabete Santurtziko portuan, Habana itsasontzian ontziratu eta La Rochelle-n (Frantzia) lurreratu ebezan. Hurrengo bi urteetan lau zeanuriztar honeen etxea, Ustaritzetik kilometro batera eta Baionatik hamalaura dagoan Jatsu herriko Lurdes Euzko Aurretekoa kolonia izan zan. Bertan seitik hamahiru urtera bitarteko hogeita hamalau neska-mutil bildu ebezan, andereño bi, kapeilau bat, laguntzaile bi eta baratzain batez batera. Kolonia hau Manuel Intxausti filipinar

jatorriko abertzale donostiarrak mantentzen eban eta Arrien-en arabera "hilaro zortitik hamar mila franko ingururainoko inber-sinoa egiten eban".

Umeen erbesteratzeen inguruan nazionalak egindako propaganda sutsuak bere eragina euki eban Frantziako giro konserbadore batzuetan, eta Iparraldeko euskaldunengan be. Alex Mendibelek (+) gogoan eukan Ustaritzeko eleizan eurakaz egoan Gelasio Aranburu abadeak meza emon eban lehenengo egunean herri osoa hurreratu zala "apaiz gorriak" ze meza mota emoten eban ikustera.

Bestalde, Mertxe, Manolo eta Ruperto, bost, bi urte eta sei hilabeteko nebarrebak, Nieves euren amagaz batera Santanderrren ontziratu ziran, eta sei urte luzetan Frantzian zehar ibili ziran: Lehenengo Gers Departamentuko kolonia baten eta ondoren leku desbardinetan, besteak beste Toulouse eta Montpelierren alokatutako etxeetan bizi izan ziran. Hiru seme-alabak mantentzeko etxeetan zerbitzen lan gogorra egin behar izan eban Nievesek.

Berraberriratzeak

Eusko Jaurlaritzako Laguntza

expert  **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

ellauri
HOTELA

Naturea entzuten

Landa Turismoa
Enpresa Zentruak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Zugaitik BEGITUten dogu

A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

 **Larrea**

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04



Mikel Goikoetxea eta Alex Mendibil, eskoitik lehenengoa eta bigarrena, Jatsu-ko koloniar, 1937rantza.

Soziala Saileko datuen arabera 38.000 ume ebakuau ebezan —Arrienen arabera 30.000 inguru—. Euretirik % 10en bat erbesteko herrialdeetan betirako gelditu ziran eta gainontzekoen berraberriratzeak nazionalak Bizkaia eskuratu eta laster hasi ziran. Lehenengotan gitxi batzuk bakarrik itzuli baziran, 1938 urtearen amaierarantza eta batez be gerrea amaitu ostean etxeratzek bizkortu egin ziran.

Alex Mendibil, Mikel, Arantza eta Elisabete Goikoetxea 1939an itzuli ziran Zeanurira, baina ez zan gauza bera gertatu Nieves Gurtubai eta Mertxe, Manolo eta Ruperto bere seme-alabakaz, 1943ra arte Frantzia gelditu ziran eta. Etxerako bidaian, mugea igaro ondoren Bartzelonako geltokian transbordo egiterakoan,

maleta ostu egin eutseela gogoratzen dau Mertxek. Baina unerik gogorrenak Bilbora, Abandoko geltokira heldu ziran bizi izan ebezan: "trenetik jaitsi ginanean, aita nor zan esan euskun amak eta hiru neba-arraboi mundua lurrera jausi jakun. Aitak lau urte igaro ebazan kartzelan eta aurpegi zuri-zuria eukan, praka apurtu batzuk janzen ebazan eta itxura tristea azaltzen eban; ganera, egun bi eroazan geltokian guri itxaroten... Une latzak izan ziran guretzat...", dino Mertxek malkoak begietan agertzen jakozalarik.

Ume hareek Euskal Herria itxiz erbesteratutako izan ziranetik jadanik 75 urte igaro dira, baina inoiz ez dabez ahaztuko aldi haretan bizi izan ebezan une gogorrak. Gerraren umeak dira...

Abade arratiarrak Erresuma Batuko ume erbesteratuen kolonietan

Erresuma Batura erbesteratutako umeakaz joan ziran laguntzaileen artean 15 euskal abade be egon ziran, horreetako lau arratiarrak izan ziran, laurak kultura handikoak eta euskal letretan ezagunak ziran: Pedro Atutxa, Benito Larrakoetxea eta Gabirel Manterola zeanuriztarak, eta Juan Cruz Ibargutxi ubideztarra.

Jon Urutxurtu

Gregorio Arrien historialariak adie-

razoten dauanez "abade honeek behar gogorra egin eben erbesteratutako umeen kolonietan, bai

erlijino arloan, bai euskerearen irakaskuntzan eta baita folklore arloan be. Gainera, hainbat era-

ASESORIA
Gorbeialde
Juridika · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

94 657 73 48 • email: info@ararotz.com
ARA OTZ
Lanetan 0 Jabetzen!
Ponzi Ugareta 2 al. ADAR (Tena) - Zubia www.ararotz.com

Kendall Languages
- Matrikulea zabalik 2012-2013 ikasturtea
- Ikasturtearen hasiera irailaren 17an izango da
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

GALANTA
Barrutik jarzteko
Zugandik sano hurbil
Lehendakari Agire 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

begitu 10 urte
arratia ubide zeberio

1936KO GERREAREN 75. URTEURRENA (IV)

gozpeneri aurre egin behar izan eutsien, Erresuma Batuko eleizarren alde konserbadoreak —Errepublikaren kontra egozan— ez ebezan ondo ikusten eta".

Pedro Atutxa Aldekoa (1887-1947) Alzusteko zeanuriztarra Ingalaterrara joan ziran kapilauen burua izan zan eta hasikeran Whit irlako Weston Manor kolonian egon zan; geroago, Southampton-en eta ondoren Oxford-en egon zan. Arrienek dinoanez, "izugarritzko lana egin eban, gauza askoz arduratu behar izaten zan eta: langileen ordainketea, andereño eta abadeen ardurea, irakasleen eta umeen lekualdatzeak, kolonietako erlijino zerbitzuak, behar barik geratzen ziran personai enplegua bilatzea..." 1939ko maiatzean Leizaola sailburuak Eusko Jauriaritzako kultura saileko ordezkari Ingalaterran izentau eban. Arrazoi politikoen ondorioz, 1945era arte egon zan Erresuma Batuan eta urte horretan heldu jakon Gasteizko gotzainaren eskutitza itzuli ahal zala adierazoz. 1947an, Zeanurin, bere herrian, hil zan.

Benito Larrakoetxea (1894-1990), Weston Manor kolonian urte bat baino gitxiago egon eta gero, ia beste urtebete inguru Southamptonen egon zan.

1939an Ameriketara, Argentinara bialdu eben eta 1972an itzuli zan Euskal Herrira, Oñatira hain zuzen be.

Gabirel Manterola (1890-1977), aste batzuk Clapton-en (Salvation Army) eta Southall-en igaro ondo-

ren, hirurogei euskal neskatik gora egozan Bihotz Santuaren Misinolarien komentura joan zan. Baina kolonia desbardineta joan-etorriak egiten ebazan: Hammersmith-era, Abbey Wood-era, Kingston-era, Epping-era... 1947ko abendura arte

egon zan Ingalaterran, eta handik Zeanurira itzuli zan.

Juan Cruz Ibargutxi (1883-1969) ubideztarrak ehun umetik gora biltzean ebazan Scarborough-eko kolonian egin eban bere beharra Ingalaterran, baina

1938ko urrian Frantziara joan zan La Rochelle-ko Saint-Louis-Rochefort-en bikario moduan behar egiteko, eta han egon zan 1940. urtera arte. Bere herrian, Ubiden, hil zan 1969ko urri lehenengoaren 14an.



Pedro Atutxa eta Benito Larrakoetxea Zeanuriko abadeak.



Gabirel Manterola zutunik.

Erresuma Batura
erbesteratutako umeakaz
joan ziran laguntzaileen
artean 15 euskal abade
be izan ziran, horreetako
lau arratiarrak



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
ALKIZABAL Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
 Amorebieta-Lemoa bidea
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
 48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
 Banatzaile ofiziala

· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
 · Garraio zerbitzua.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzan erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar
■ instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

**Nik maite
dut
euskara**



CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

**2012-2013
IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK
Matrikula zabalik**

Izena emateko epea irailaren 3tik 26ra



Euskalduntze eta Alfabetatzeikastaroak

**HABEren 1., 2. eta 3. mailak, EGA,
Hizkuntza Eskakizunak...**

**Autoikaskuntza:
Multimedia gela eta ikus-entzunezko baliabideak.**

On line ikastaroak

Talde bereziak: gurasoak, merkatariak...

Mintza-praktika taldeak

**Irailaren 1go hamabostaldian matrikulatuz gero,
%20ko deskontua**

Bekak eta dirulaguntzak



INFORMA ZAITEZ!

GALDAKAOKO UDAL EUSKALTEGIA

Goizez: 10:00-13:30 / Arratsaldez: 16:00-19:00

Muguru 6,
48960 GALDAKAO

T. 944 566 174 • F. 944 571 413
euskaltegi@oa.galdakao.net



**EUSKERAZ
BE BAI!**

ZORNOTZA Udal Euskaltegia **2012-2013 IKASTURTEA**

Astean 10 ordu, astelehenetik ostegunera (320 ordu)

10 horas semanales, de lunes a jueves

Astean 4 ordu, bi egunetan (120 ordu)

4 horas semanales, dos días

Autoikaskuntza (190 ordu)

Autoaprendizaje

Dendaketan (60 ordu)

Cursos para comerciantes

Matrikula epea zabalik irailaren 3tik 21era Prematrícula del 3 al 21 de Setiembre

Aurrematrikula egiteko: web orrian (www.ametx.net) edo euskaltegian bertan

Prematrícula página web (www.ametx.net) o en el mismo euskaltegi

Bulego ordutegia:Horario de oficina 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

Telefonoa: 946732026

euskaltegia@ametx.net

San Pedro kalea, 5

MENDI-LASTERKETEAK

Badator Gorbeia Suzien

Urriaren 13an Zeanurin izango da aurtengo Euskal Koparen akabuko mendi-lasterketea, eta horren inguruan astegoiaren osoan ekintza ugari burutuko dira herrian.



Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia mendi-lasterketearen kartela.

Erredakzioa

Halan, herritar talde batek bultzatutako asmoaren emoitzea dogu "Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia" proba barria, gero eta oihartzun handiagoa daukana. Gorbeia Suzien taldea eta Joko-Alai kirol alkarteak dira proiektuaren motorra, Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz, eta Eguzkilore da babesle nagusia. Izan be, bitxigintzan erreferentzia dan marka honek mendiko kirolaren munduan postura egitea ebatzi dau, era horretako karrerak hartu daben indarra ikusi dauan ezker.

Lasterketak ibilbide posible bi eukiko dauz. Alde batetik, maila absolutuko korrikalariak egingo dabena 28Km eta 1.800 metroko desnibel positibokoa izango da, eta martxa gogorrena egin gura daben ibiltariak be egiteko aukerea eukiko dabe. Bigarren ibilbideak, sub23 korrikalariena eta martxa laburrarena, 22Km eukiko dauz eta desnibel kota txikiagoa, 23 urtez azpikoak Karkabitxuetako pistatik irten eta 16kmko ibilbidea egingo dabe. Errekorridu biak Gorbeia Parke Naturala eukiko dabe agertoki, Alex Txikonen gaztetako erronken lekukotasuna emon daiketan Gorbeia bera. Hori izan da-eta amua alpinista lemoaztarra egitaspora gehitzeako eta antolaketan laguntzeko. Bestalde, honezker lasterketan parte hartzeako asmoa adierazo dabe mundu mailako korrikalari nabarmenak; besteak beste, Oihana Kortazar (Km Bertikaleko munduko txapelduna), Ionut Zinca (Mountain Running International Cup-eko txapelduna), Raúl García (bost aldiz Espainiako mendi-las-

terketako txapelduna) eta David López (Skymarathoneko munduko txapelduna).

Lasterketea sare sozialetan

Honegaz guztiagaz, antolatzaileak ekin egin deustie egitasmoaren barri emoteko kanpaineri, Facebook-en daukien orrian esaterako. Gainera, atzenengo urratsa bideo promozionala zabaltzea izan da eta arrakasta handia euki dau; izan be, lehenengo zazpi egunetan 1.500 bisita baino gehiago lortu dabez YouTube eskegita dagozan bersino biak (<http://www.youtube.com/watch?v=1DAs9i598rA>). Horrez ganera, aspaldian ipini eben martxa www.gorbeiasuzien.com webgunea. Hemen, probearen eta asteburu osoko egitarauaren nondik norakoen bari emoten dabe antolatzaileak eta baita karreraren zein martxa izena emoteko aukerea eskeintzen dauan loturea be.

Egitarau zabala

Astegoiaren egitarauari jagokonez, barikuan Alex Txikonen proiektzioak emongo deustio hasikerea ospakizunari. Lasterke-

tearen egunean, zapatuan, arrastiko 18:00etan Bizkaiko Trontza Txapelketaren finalagaz eukiko dau segidea jaiak frontoian eta gauean erromeria egongo da plazan, Zirkinik Bez taldearen eskutik. Amaitzeko, domeka eguerdian Kultur Etxean egingo dan mahai-inguruan Irati Anda eskalatzaileak, Oihana Kortazar korrikalariak eta Naia Alzola triatletak "Emakumea eta Kirola" gaia jorratuko dabe. Honekaz batera, Londreseko Olinpiar Jokoetan brontzeko domina lortu dauan Maider Unda borrokalari be ekarteko ahaleginak egingen dabez antolatzaileak. Mahai-inguruaren ostean, kopautxo prestauko dau Igitiek, Arratiako nekazari eta abeltzainen alkarteak.

Gorbeia Suzieneko ordezkariaren esanetan, ekimenaren helburu nagusiak dira, alde batetik, Gorbeia Parke Naturalaren altxorak erakutsi eta bioturismoagazko konpromisoa aldarrikatzea; eta bestetik, Zeanuriko herriari bizia emotea, ohiko azokeagaz batera. Horretarako, "luze gabiz beharrean eta emoitza onak lortuko doguzalakoan gagoz" dino antolatzaileak.



RALLYSPRINT

Zeberio-Artea Lurgaineko II. Rallysprinta hilaren 8an

Euskadiko Lurgaineko bigarren rallysprintaren edizioa ospatuko da hilaren 8an Artea eta Zeberion.

Erredakzioa

Menditik zehar hirutan egingo dabe partaideak Zeberio eta Artea arteko bidea, arrastiko 15:00etan hasita. Proba 18:30ak aldean amaituko da Zeberion eta ondoren sariak bananduko dira.

Bigarren urtea da rallysprint hau egingen dana. "Igaz 25 ibilgailuk hartu eben parte, aurtan 30 bat izatea espero dogu" azaldu deustio Mikel Madariaga antolatzaileak. Bi zein lau gur-

pileko ibilgailuak izan daitezke. Partaideak Bartzelona, Errioxa, eta Kantabriakoak dira, "Bizkaiko bat be badago" baina Arratiarik ez, nahiz eta antolakuntza Arratiakoa izan.

"Hau antolatuteko, igaz, Gorbeialde Racing automobilzale alkarteak sortu genduan eta rally honetaz aparte slalom-ak be antolatuten doguz" dino Madariaga. Tartean, Zeberio-Ermitabarri slaloma, aurtan Iker Ercillak, Gorbeialde Racegeko partaideak irabazi dauana.



Kartela.

TXIRRINDULARITZEA

Arratiarrak Euskadiko Mountain Bike Txapelketan

Erredakzioa

Esti Garcia eta Julen Zubero txirrindulari lemoaztarak Euskadiko MTB Txapelketan egongo dira aurtan be, eta urri lehenengoaren 9an parte hartuko dabe lehenengo proban, Lezamako Mountain Bike Maratoian. Aurretik Zuberok bigarrena egin eban urri lehenengoaren 1ean Castejon de Sosen (Huescan) ospatutako Aramonbike Non Stop lasterketan, eta astebete arinago, abuztuan, zortzigarren gelditu zan Madrid Xtrema MTB maratoian.



Julen Zubero.

LASTO JAURTIKETEA

"Tubi" k berretsi dau txapela



Tubi lastoa botaten.

Erredakzioa

Abuztuaren 22an, jokatu zan Bilbon, jaien barruan, Euskal Herriko Lasto Jaurtiketa Txapelketa. Txapela Joxe Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak eroan eban, 12 kiloko fardoa 6,30 m.tan jarritako listoi gainetik pasuarazota. Zortzi kirolari ibili ziran lehian, tartean beste arratier bat Bernardo Ureta, "Urpe".

Kirol hau, Iparraldetik jatorku eta Iparraldean dauka tradizio handiena eta Bilbon Iparraldeko txapelduna egon zan Andi Arbenoitz, aurreko domekan Baionan eskuratu ebana txapela, 5,90m eginez. Bilbon be, marka hau beratu egin eban, baina hirugarren egiteko baino ez eutsan balio izan.

Arbenoitz, Lapazaran eta Tubi txapelaren bila

Lehenengo jaurtiketan 3,50 m.tara ipini zan listoi, 30 cm altuago 4

m.ra iritsi arte, 4 m.tatik 5 m.tara 20 cm eta 5 m.tatik aurrera 10 cm bakotxean. Bost metro eta erdira heldu orduko, kirolarien erdiak baino ez ziran geratzen. Kanpoan geratu ziran, Bixente Andron eta "Urpe" arratiarra 4,8 m.ko marka eginez eta Carlos Ruiz 5 m.ko eginda.

Laster geratu zan kanpoan Xabier Pujana 5,20 m.ko markeagaz eta Oskar Perezek 5,60 m.ak gainditu zituan. Lehia orduan, Arbenoitz, Lapazaran eta "Tubi"ren artean egon. Iparraldeko txapeldunak ezin izan eban Baionan egindako marka, 5,90 m. hobetu eta hortik aurrera bizkaitar bien norgehiagokea izan zan. Lapazaranek ezin izan eban 6,20 m.ko gainditu eta dimoztarrak berretsi eban barru be txapela. Bilbon 6,30 m.tan jarritako listoi gainditu eban, baina bere marka 6,60 m.tan dago.

BOLA JOKOA

Juantxo Ozerinjauregi nagusi Zeanurin

Jon Urutxurtu

Juantxo Ozerinjauregi altzuarrak eskuratu eban 2012ko Zeanuriko bola txapelketa. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11n, San Lontzo bigarren, eta bertan auzuneetan jokatu ziran hiru txapelketetako —Altzuakoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau sailkatuak hartu eben parte. Bigarren eta hirugarren lekuetan Iñigo Uriarte eta Maximo Beitia sailkatu ziran.

Igazkoa gertatzen ez bada —txa-

pelketea bertan behera itxi zan— Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Altzuztan izango da, San Mige-

letako egitarauaren barruan, eta herriko kofradien arteko taldekako txapelketa jokatuko da bertan.



Juantxo Ozerinjauregi.

Argazkia: Jon Urutxurtu (artxiboa).

TXIRRINDULARITZEA

Ubideko IV. Mendi Bizikleta Martxea 15ean

Erredakzioa

Berrogei kilometro pasatxo egingo dabez urri lehenengoaren 15ean Amexier Mendi Taldeak antolatutuan dauan marxa honetan parte hartzean dabena. Igaz 150 izan ziran, aurten, eguraldiak lagunduten badau 200era heldu daitezkeza pentsetan dabe antolatzaileak. Urtekeria 09:30ean izango da plazan eta izen emotea interneten bidez egin daiteke aldeztetik http://www.kirolprobak.com/competicion_ficha.php?id=596 helbidean, edo egunean bertan proba hasi aurretik

Ubideko plazan.

Homiketea Ubiden

"Urtero lez, heritik pasauko dira

txirrindulariak, izan be, homiketea plazan izango da" azaldu deusie BEGURI antolatzaileak. Hau da ibilbidea: Ubide-Upeteko landak-Saldropo-Salutrieta-Otzarreta-Upete-Zubizola-Ubide-Siskiño-Alaran-Harrobiak-Lekarranda-Atxurdin-Ubide.

Amaitutakoan "parte hartzailei motxilato bat emongo jakie oterakoak" eta opari zozketea be egingo da.



Bizikleta martxearen kartela.

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telfa: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

Bizkaiko Urtxintxa Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTARROAK
Tel: 94 432 04 45

Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALEK eta gehiago

- Astialdiko Begiralea **Arratian** • Astialdiko Zuzendaria
- Jendarte Kultur Dinamizatzailea • Hezkidetzan Aditua
- Kulturarteko Hezkuntzan Aditua • Heziketa Premia Bereziak Astialdian • Parte-hartzea bultzatzeko Teknikak + IKASTARO LABURRAK

www.urtxintxaeskola.org

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

ARRATIKO ESKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airezatutako sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriales, Pab. 07
Tel. Fax: 94 673 62 76
619 736 616
48143 Igoite Bikoia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoite

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoite

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areartza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

MENDI MARTXEA

Zeanurin ermitarik ermita

Urri lehenengoaren 8an, zapatuan, burutuko da Zeanuriko XXV. Ermiten Mendi Martxea.



Santa Lutzi.

Jon Urutxurtu

Orain arte ibilaldia domekan izaten izan bada be, aurten zapatua pasatzea ebatzi dabe antolatzaileak. Gainera, klasiko bihurtu eta Bizkaiko zaharretako dan oinezko marxa honek 25 urte beteko dauz eta izaera berezia izango dau.

1988an antolatu eban lehenengo aldiz Joko Alai Kirol Alkartek eta ordutik hona hutsik egin barik eutsi deusie zeanuriztarrak urteroko ziteari. Helburuak hasierako berberak dira: zapatu goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez emotea, eta herri-tarrai zein kanpotarrai Zeanuriko ingurumari zabalak eta ondare kulturala —kasu honetan batez be erlijiosoa— erakustea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan han-hemenka azaltzen diran ermita edota eleizak, guztira hogeia. Dana dala, ibilbide osoa egiten dabenak hemeretzi ingurutik igaroko dira, Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpoan geratzen da eta.

38 kilometroko ibilbidea

Zeanurin parroikia bi eta hamazortzi baseleiza —bakotxa bere berezitasunak eta historiagaz— aurkitu daitezke udalerrira osatzen daben zazpi kofradietan sakabatatuta. Eta beste elementu batzuek batera, baseleizak auzoneai nortasuna emoten deutseen ardatzetako bat dira.

Ondare erlijiosoa bisitatu eta ezagutzuz, aldi berean natureagaz hartu-emonetan ipinteko aukera parebakoa eskeintzen dabe ibilbidea osatzen daben hogeta hamazortzi kilometroak. Urtekere herriko plazan izango da, eguneko lehen argiak kukurruku egiteaz batera, 07:30ean. Ate-

ra eta bost bat minutu geroago Eleizondo auzunean sartzean da ibilbidea, lehenengo, Piedadea izenaz ezagutzen dan baseleiza aurkituz; oraindino konserbatzen dan Erdi Aroko galtzadearen tarte txikia zapalduz, eta ermitearen eleizpetik igaroz, atoaan, Andra Mari parrokiagaz topo egiten da. Eleizea harro azaltzen da, bere kokaera estrategikotik herrigunea kontroletan dauala; sei urte itxita egon eta eraberritua izan ondoren, 2.000ko abuztuaren 15ean zabaldu ebazan ateak barriro. Barroko estiloko erretaula ederra gordetzen dau bere barruan Andra Mari. Ezin da aitatu barik itxi parrokiaren eta Piedadearen artean altxatzen dan altzairuzko kurutzua, Gorbeia kurutzaren mendeurrena gogoratze 2001ean Nestor Basterretxeak egindakoa.

Eleizondotik ibilbidea Asterria kofradiako lurretan sartzean da, Santi Kurutz baseleizaren bila; Zeanuriko mugen barruan egon arren, eleizaz aretazaterra da. Goranzko joerari ekinez, Ogara-beiti auzotik Ogara goiti auzora igoz, San Andresera heltzean gara; baseleizaren barruan zein kanpoaldean hazurrak aurkitu ziran eta auzoko zaharrak diranenez, Orozko eta Zeberio alde-tik ekarten ei ziran hilak hemen hilobiratzeko.

Bideari ekinez, eta Urrekoatxa (582 m.) mendia ezkerrean itxi, Zeanuriren eta Dimaren arteko mugarako norabidea hartzean da San Blasera heltzeako. Mugarrietara begiratuz ermitea Dima partean kokatzen bada be, lurra Zeanuriko Ibarguen Kofradiaren jabetzea da. San Blasetik aurrera bideak beherantza egiten dau, eta amasa hartzeako aukerea

emoten dau, Alzusteko Kofradiako lurretan sartzean dagoan aldapa-txoari barriro heldu baino lehen. Alzusten ermita bi dagoz zain: San Migel eta Santa Lutzi. Deigarria da San Migeleko kanpaietako batean irakurri daiteken idazkuna: "En el ambito donde resuene mi voz no triunfarán los liberales". Dirudianez, intera baten karlistak edo konserbadoreak izan ziran jaun eta jaube paraje honeetan...

240-N gurutzatuz, Undurraga auzunerantza jarraitzen da Bilbo urez hornitzen dauan urtegi bukolikoa eskuinaldean itxita. Arratia ibaia zeharkatu ostean, San Pedrori kuku bat egin eta Ipiñabururantz egiten dau bideak, bertan aurkitzen diran eleizea eta baseleiz bien bila: Santiago, San Adrian eta Santa Ageda.

Bigarren parroikia

Santiago Zeanuriko bigarren parroikia da, eta eleizatik hur dagoan hilerrian —herriko bigarrena— lurperatzen dabez gaur egun be ipiñaburuztarrak. Parrokia honetako bateo agiriak —Derion, Bizkaiko Eleizaren Historia Artxiboan gordetzen diran— Bizkaiko zaharrenak dira, 1501ekoak hain zuzen be. Eleizpean indarrak berreskuratzeko lekua ipinten dabe antolatzaileak. Kopautxo egin, amasa hartu eta indarrak barritu bezain azkar, Santa Agedara; urtero, santa siziliarraren egunean, jai bitxia ospatzen da ermita honetan: herriko talde batek, dultzaina eta panderoaren soinuaz lagunduta, Santa Agedari bere omenezko koplak abesten deusaz mezearen hasieran.

Aurrerantzean, Atxondo igaro eta Muñegi aldetik aurrera eginez, estartarik estarta, Zanburuko (789 m.) hatxaren itzalpean jarraitzen da, Altxuako San Juanera ailegetako. Ermita hau XV. mendearen amaierakoa da; hemen egindako indusketa arkeologikoetan epigrafe funerarioa —baseleizaren barruan gordetzen da— aurkitu zan honako idazki honeguz: Zeiani c/m suo ger/mani. Laun/ti In cor/pore suo/ +S+N ob/it (...)/O(...) ER/(...)DCC. Zeanuri herriaren izanari buruzko idatziko lehen aitamenetako bat da; gainera, kontuan izan behar da gaur egun be zeanuriztarrak, agohizkuntzan, Zeani izenaz deitzean deusielu euren herriari.

Altzua kofradiatik Otzerinmendi kofradiara zuzentzen dan pistatik 20 bat minutu ibili ostean, San Justo azaltzen da haresdui zoragarri baten erdian. Artzaintzeagaz daukan loturea erakusten dau baseleizaren egitureak, eraikinaren



Ibiltari bat ibilbidea egiten.

atal bata eleizea dan bitartean, bestea ganadua babesteko kotea da eta. Ermitatik ehun metro dagoan karobiak be bisitea merezidu dau: urtero abuztuaren lehenengo asteburuan Ipizki Taldeak isiotuten dauana da.

Otzerinmenditik plazara

San Justoko haresdua zeharkatuz eta beherantza pare bat kilometro ibili eta gero, San Lonto azaltzen da. Tradizioaren arabera, Gorbearen bestaldean dagoan Orozko herritik ekarten ei ebezen gorpuak hemen lurperatzeko; gertaera honen lekuko Pagoniotzetako andabidea toponimoa da. Baseleizaren atzealdean, sakristiako leihopean, irudi eskematikoa grabata dagoan harlandu bat dago; Ybarra y Bergéren arabera, XI. mendekoa da eta Amabirjina Umeagaz irudikatzen dau. Harri hau aldarepean aurkitu ei eben. Azpimarratzekoa da be oraindino gaur egun baseleiza honen eleizpean, Uribe eta Otzerinmendiko kofradiak egiten da-

ben urteko batzarra, ermita hau auzune biai jagokie eta.

Errekatxoagaz topau arte aurbeheran jarraitzen da eta errekatxo zeharkatzagaz batera Uribe kofradian sartzean gara; hiru baseleiza aurkitzen dira bertan: San Migel, San Urban eta San Pedro, hirugarren hau Axpeko jauregiaren jabetza. Jadanik ibilbidea azken txanpan sartzean da, eta ibiltariak txiri-txiri zuzenduko dira herriko plazan itzaroten eukiko daben helmugearen bila. Plazan bertan, San Isidro eta bere aurrez aurre dagoan San Antonio ermiten artetik igaro bezain laster helmuga azaltzen da.

Amaitzerakoan, hogeta hamazortzi kilometro eroango dabez oinetan parte-hartzaileak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziko deusielu, ondare erlijiosoa ezagutzeaz batera uda udagoien bihurtzen dabilan sasoi honetan natureak erakusten dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskeiniko deusielu Zeanuriko Ermiten XXV. Mendi Martxeak.

Martxeari buruzko zehetasunak

Izena emotea: Urri lehenengoaren 8a aurretik. 7 € sartuz BBK-ko kontu-zenbaki honetan: 2095 0335 29 3830586275. Egun berean 06:45etik aurrera, herriko plazan, 10 €. Joko-Alaiko bazkide guztiak eta 14 urtetik beherako umeak: 3 €.

Urtekerea: 07:30ean, Ibarreta pelotalekuan.

Jan-edana: San Blasen, Santiagon eta San Juston.

Ibilbide desbardinak:

Luzea: 38 Km.

Ertaina: 28 Km. San Juanetik helmugara.

Laburra: 15 Km. San Migeletik helmugara.

Argazki lehiaketeta: parte hartzaileak gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dabez helbide honetara: jokoalari@gmail.com. Saria: Bikote batentzat gau bat eta gosaria Alzustako Ellauri Hotelean.

Pelotalekuko duxak zabalik egongo dira.

Laguntzaileak: Zeanuriko Udala, Loli-Leire janari-denda, Norbega-Coca-Cola, Arratiako Gurutze Gorria, Txoko Sagarna, Jubiladuen tabernea eta Ellauri Hotela.

MENDI MARTXEA

Burdibideetatik joango da Areatzako Mendi Martxea

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 15ean izango da Areatzako I. Mendi Martxea. Ibiltariak udaletxe aurrean batuko dira goizeko 08:00etan eta ibilbide bi izango ditue aukeran. Laburrak 17 km ditu eta 800 m.ko desnibel positiboa; luzeak, berriz, 27 km. eta 1.500 m.ko desnibel positiboa. Udalak, Lamino Mendi Taldeak, Fraka Zuri Gazte Asanbladeak, eta Hesperia hotelak antolatuta dabe martxa hau.

Mendi martxa hau egiteko "bur-

dibide batzuk garbitu eta errekerperau dira. Amaieran parilladea egongo da eta Hesperia hotelean gau bat eta mendi materiala zozketatuko dira" azaldu deusie BEGURI antolatzaileak.

Martxa honetan parte hartzeako izen emotea internet bidez egin daiteke <http://areatzakomartxa.blogspot.com.es/p/izen-emotea.html> helbidean 5 euro ordainduta, edo egun berean hasi aurretik plazan 7 euro ordainduz. Duxa hartzeako aukerea be egongo da helmugan.



Ibilbidea.

MUSIKEA

Agur Igor & Jon Jaia Arantzazun



Kartela.

Erredakzioa

Arantzazuko Elizportaleko Gazte Asanbladak "Agur Igor & Jon Jaia" antolatu dau urri lehenengoak 8rako Arantzazuko plazan. Eskean Kristo rock taldeko Igor Delgado, eta Larregi eta Materia Gris taldeetako Jon Ipiñazar atzerri doaz eta eurei agurra egitea da jaiaren asmoa.

Egun guztian zehar luzatuko da ospakizuna eta iluntzeko parilladearen ostean kontzertuak egongo dira Eskean Kristo, Larregi eta Materia Gris taldeakaz.

Jaia aprobetxauz, Elizportalekoa Gazte Asanbladak bere burua aurkeztu eta agertu gura dau jentaurrain.

TRIKITIXEA

Nafarrak eroan eben txapela



Elizagoien aitzak.

Erredakzioa

Zeanurin jokatu zan, Andra Mari jaietako egitarauaren barruan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXII. Txapelketa eta Itsaso Elizagoien eta Irune Elizagoien etxalartarrak jantzi eben txapela. "Txapelketa

polita eta giro aparta" egon zan bertaratutakoen arabera.

Bigarren Beñat Ganboak (Aretxabaleta) eta Julene Otegik (Mungia) osotutako bikoak egin eban. Bizkaiko trikitilari onenari sariak Aritz Landazabalek eta Julene Otegik (Bilbo eta Mungia) jaso zituen.

MUSIKEA

Folk, rock, jazz eta blues joten ikasi daiteke Astrapalea eskolan

Erredakzioa

Igaz hasi ziran Astrapalea alkartekoak musika irakasten, orain dala 10 urte Asier Ercilla musikariak hasitako proiektuari jarraipena emoteko asmoagaz. Alkartearen helburua ez da soilik instrumentu bat jotzen irakastea, taldeko musika sortzea daukie abiapuntuzat eta ikasleak hasieratik taldean jotera animetan ditue "laster kalean edo oholtza gainean egon daitezkan" Joseba Negro alkartekoaren berbetan.

"Eskolan musika estilo desbardiak irakasten dira; folk (trikia, panderoa, albokea, gitarrea) eta Rock (gitarrea, bajua, bateria) eta aurtzen Blues eta Jazz estiloak ikasteko aukerea egongo da instrumentu barriakaz (pianoa, saxofoia, bibolina...)" dino Astrapalea alkartekoak.

Edozein adinetako jenteak emon ahal dau izena, "aurreko ezagupen teorikoak ezinbestekoak izan barik". Ikasturtea hilaren 17an hasiko da, Igorren eta izen emotea astebate lehenago.

Umeen moda 0-20 urte
• Botoli • Ray • Aranda
• Akor • Quilber • Arantza
• Gantelak • Iñe • Hassan
sein
LEHENDAKARI AGURRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARRAZ ZEIN ERDARAZ
Balneario: A1, A, B112 #
Lehendakari Agurte 31
Telefono: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskaltel.net

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Garbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnco-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

axular
kultura elkarrizketa
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DOKU KONTSULTAN
ONDARUN HIGUGIZINEN
ASBEGURTAN
Sabino Arana, 3 Tfnco: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

ekin s.a.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 4 BEDIA

17:00etan, liburutegian eta ludotekan 2012-2013 ikasturtea hasten da.

URRI LEHENENGOAK 7 ARTEA

Arteko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean. 02:30ean eta 04:30ean, Arratiako herrietara etxera bueltatzeko autobusa. Autobus geltokian.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

Andra Mari jaiak Elizondan. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 8 ARANTZAZU

Agur Igor & Jon jaiak. Ikusi egitaraua 17. orrialdean. Eleizportaleko Gazte Asanbladak antolatuta.

DIMA

12:00etan, mezea Piedadean.

IGORRE

18:00etan, Mihiluze txapelketearan finalurrekoa Kultur Etxean.

ZEANURI

07:30ean, XXV. Ermiten Mendi Martxea.

San Adrian jaiak Ipiñaburu auzoan. 12:00etan mezea eta barauskarria.

ZEBERIO

15:00etan, Zeberio-Artea Lurgaineko II. Ralysprinta.

URRI LEHENENGOAK 9 IGORRE

Arratia Motor Taldeak antolatutako XI. Konzentrazioa. 10:00etan, kamiseta banaketara lehenengo 150 partaideentzat. 11:00etan, ibilbidearen hasikerea. 14:00etan, parrilladea Donibane tabernan.

ZEANURI

13:00etan, mezea eta barauskarria San Adrian ermitan.

URRI LEHENENGOAK 10 IGORRE

Igorreko arte mintegietan parte hartzeako izen emote epea zabalduen da. Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 11 LEMOA

Udalak antolatuta informatika eta mekanografia ikastaroaren hasikerea. Liburutegiko informatika gelan.

URRI LEHENENGOAK 13 ARTEA

08:30ean, Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta, Torrevejara urtekera. Udaletxean.

URRI LEHENENGOAK 15 AREATZA

08:00etan Areatzako I. Mendi Martxea. Ibiltariak udaletxe aurrean batuko dira. Ibilbide bi izango ditue aukeran. Laburrak 17 km ditu eta 800 m.ko desnibel positiboa; luzeak, barriz, 27 km. eta 1.500 m.ko desnibel positiboa.

ARTEA

10:00etan, MerkArtea XIX. Euskal Elikagai eta Artisanu Azokea. 21:30ean, Mikel Markez eta Erramun Martikorena plazan. 23:00etan, erromeria Aire Aire taldeagaz.

UBIDE

09:30ean, Ubideko IV. Bizikleta Martxea.

URRI LEHENENGOAK 16 LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, oroitze eguna (Betsaide 564 m).

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak Axpe-Memaia-Betsaide. Espeleologia.



Bertso bazkaria LEMOA



Gaztetxe azpiko zelaia,
Irailak 8, larunbata / 14:30ean



Arzallus eta Iturriagagaz bertso bazkaria Lemoan 8an

Lemoako Andra Mari jaien egitarauaren barruan antolatu dabe punta-puntako bertso bazkaria Amets Arzallus eta Unai Iturriaga bertsolariakaz. Sarrerak Lemoako udaletxean dagoz salgai. Euria bada kiroldegian egingo da bazkaria.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behea (Igorre).

DANERIK ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzen dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bi bikote gara. 685 707 176 Eider.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXEKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako sariduna:

1 Lemoako Udalak emondako txartel bi Unai Iturriaga eta Amets Arzallusen bertso bazkarirako.


Nerea Goioaga (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kirol batzuetan emoten da.
2.- Alperkeria. Letra bat. 3.- Berrogeta hamar erromatar. Birritan, korotza.
Oiloak uxatzeko hotsa. 4.- Kaza.
5.- Birritan, gar-gar. Adan eta Ebaren hirugarren semea. 6.- Bukaerea. 7.- Izan aditz jokoan. (Atz.) Umeen berbetan, mosua. Letra bat. 8.- Bokala. Upa.
9.-Arrabita.

GOITIK BEHERA

1.- Bostehun erromatar. Bizkarkada.
2.- Zintzo. Hitano. Boroa. 3.- Bastoia.
Bike. 4.- Joan dan urtean. Ondo, majo. 5.- Persona izenordaina. Epel.
6.- Bokala. Trabes, makur. Litia. 7.- Pluraleraz, oiloaren kumea. Nitrogenoa.




Topau pastel bat egiteko erabilten diran zazpi osagairen izenak.

A	Z	T	I	G	A	R	R	O	A
S	E	M	A	U	D	I	A	Z	K
K	A	A	S	T	I	B	Z	U	A
O	M	R	G	I	H	A	R	N	O
M	E	H	E	X	I	L	I	A	K
A	K	O	R	K	I	R	U	S	U
I	O	A	U	R	U	Z	A	D	A
K	A	Z	E	G	A	Z	I	T	Z
O	S	T	O	B	A	G	A	R	I
H	A	U	T	M	E	A	N	U	A
A	R	A	E	Z	O	L	U	A	R
M	E	R	E	N	G	O	R	I	A
I	K	R	O	A	U	G	U	R	E
X	I	A	I	M	A	G	E	L	A
I	S	T	O	B	U	L	E	A	N

AKIKI MI KO

Igor
Menika



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com



ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zain erdoras

Agine Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unabiz@euskadinet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Niguel) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com



Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

KIXMI
KOPIDENDA JAIONE IRAGORRI



LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kixmikopi@gmail.com

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante
Montero**

Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903.653

ARRATIA FUTBOL TALDEA

"Gure onena emoten dogu zelaian"

Arratiako andrazkoen futbol taldeak erronka barri bateri ekingo deutso hastear dagoan denporaldian: "Emakumezkoen Euskal Liga" izeneko kategoria barrian jokatuko dau. Maiatzean gure neskek Bizkaiko lehen mailako txapela jantzi eben eta Euskal Ligara igon eben zuzenean. Beraz, hilaren atzenengo astegoienetik aurrera EAE osoko talde onenakaz neurtuko dabez indarrak; liga horretan Gipuzkoako zazpi talde, Bizkaiko bost (horreen artean Arratia) eta Arabako bi lehiatuko dira. Horrek guztiorrek talde beilegiaren jarreran eta jokoan ze eragin izango dauan galdetu deutsegu Naia Bilbao "Bilbo" entrenatzaileari, Leire Orue aurrelariari eta Naia Totorika "Toto" erdilariari. Bilbok, Oruek eta Totok aitortu deuskuenez, badakie gogor egin beharko dabela lan, baina horrek ez ditu bildurtzen. Hain zuzen be, ohituta dagoz zailtasun ugari gainditu behar izatera urterik urtera futboleant jokatzen segidu ahal izateko.

Erredakzinoa

Zelan bideratuko dozue datorren denporaldia?

Bilbo: Liga barria danez, ezin dogu ezer aurreikusiri; Gipuzkoako eta Arabako taldeak ez doguz ezagutzen. Beraz, printzipioz, liga honetan mantendutea da gure helburua. Eta gero, gauzak ondo badoaz, helburu handiagoak planteauko doguz apurka-apurka.

Orue: Maila altueneko taldeak bizkaitarrak izango dira segurue-nik, eta horrek itzaropena bizten dau gudan, egia esan.

Taldean aldaketarik egin do-zue? Fitxaje barririk?

Bilbo: Jokalari bik itxiko gaitue, Leire Oruek eta Amaia Bilbaok; pieza inportanteak dira taldearen alkartasuna sustatzeko. Edozelan be, Oruek gure artean segiduko dau, entrenatzaileari laguntzen, eta fitxea egingo jako badaezpada.

Bestalde, hiru fitxaje barri daukaguz, gure jokoa indartuko dabenak: Arrate Arrieta, Jone Etxebarria eta Itxaso Niza.

Pieza inportanteak diran

jokalariak aitatu dozuz, baina zeintzuk dira Arratia futbol taldearen indarguneak? Zerk eroan zaitue aurten Euskal Ligan jokatzeraz?

Bilbo: Taldea bera. Oso harreman ona daukagu bai zelaian, bai aldagelan eta bai kalean. Taldeagaz daukagun konpromisoa da gakoetako bat. Horrezaz gainera, badago kalidadea be, jokalaria batzuk bakarka oso trebeak dira eta talde-jokoa be bikaina da.

Toto: Jokalarien inplikazinoa azpimarratuko neuke nik. Alde batetik, asko laguntzen deusagu alkarreriri; eta bestetik, ekipoa badagoz kategoria altuagoetan jokatari ahal izango leukien jokalaria, baina bertan segiduten dabenak, taldeagaz daukien loturegaitik eta, zeozer lortzeakotan, Arratiagaz lortu gura dabelako.

Zer da, ba, futbola zuontzat? Kontuan izanda mosu-truke jokatzen dozuela, aurrera begira aukera profesional handirik ez daukazu eta esfortzu handiak egin behar dozuezala ekipazinoa lortzeako edo bi-jeak ordaintzeko, zenbatga-

rrena da futbola zuen lehen-tasunen artean?

Orue: Aurreko denporaldian, esate baterako, futbola oho-rezko lekua izan dau gu guztion buruetan. Sano urte gogorra izan da, sano *heavy*-a psikologikoki. Lehenengo postuetan egon ginan hasieratik eta horrek presino handia eragin deusku. Presino handia, baina bizipen polita be bai.

Toto: Serio hartzean dogu futbola. Akaso, hasikeran, futbola lagunakaz ondo pasetako atxakia baino ez zan izango, baina gero eta hobeto egiten genduala ikusita eta horrek emoten euskun bizi-pozaz konturatzean, diziplina zo-

Arratiako andrazkoen

futbol taldeak

"Emakumezkoen

Euskal Liga" izeneko

kategorian jokatuko dau



rrortu genduan eta konpromisoa garatuten hasi ginan. Gaur egun argi daukaguz gauzak eta geure onena emoten dogu zelaian.

Bilbo: Onartu beharra dago bizi garan sasoiari futbola *hobby* bat baino ezin dauala izan guretzat; ez gara horretaz biziko. Baina liga irabazi genduan eguna nik sekula bizi izan dodan egunik handiena izan zan.

Igazko denporaldi biribilaren ondorioz, gehiago interesetan jakon jenteari zuen ibilbidea? Gehiago beteten ziran harmailak?

Orue: Bai. Kaletik askok, batez be gizonak, preuntetan euskuen emoitzei buruz eta animau egiten ginduezan, eta igarten jakien liga jarraitzen ebela. Egundo be ez jakun bururatu holangorik bizi geinkeanik. Zelaian, aldiz, ez zan igarri ezelangorik aldaketarik, liga irabazi genduan partidura arte behintzat.

Bilbo: Bai, harmailak ia hutsik egon ziran urte osoan zehar; azkenengo partiduen amaierako txaloak asko bete ginduezan baina. (Naiari begiak beteten jakoz egun ha gogoratzean).

Amaitzeko, badakizue BEGITUK "Emakumea eta kirola" izenburuko mahai-ingurua antolatuko daua urri bigarrenaren 14an Zeanurin, bezperan

izango dan Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia mendi-lasterketearen inguruko egitarauaren barruan. Beharrezkotzat jotzen dozuez holango ekimenak?

Bilbo: Bai, guk egiten doguzan sakrifizioak ikusita, nik asko baloretan dot beste neskek beste kiroltan egiten dabena. Eta, tamalez, andren kirolaz ezagutza falta handia dago.

Toto: Andrazkoen kirola badago apur bat alde batera itxita, eta guk geuk be ez daukagu beste kirolarien barri, gure lagunak ez badira eta eurak ez badeusku zuzenean kontetan.

Orue: Gainera, neskek geure bidea ereigiteko modua asmatu behar dogu. Azken baten, ez badaukazu inplikaziorik eta alde batetik bestera ibilteko denporea, gogoia edo dirua, amore emotea da normalena.

Luze berba egin leikie kirol munduan gainditu behar dabezan eragozpenen gainean, baina hiru futbolari honeek (Bilbo be Arratian futbolari izandakoa da) aitamen berezi bategaz agurtu gaitue. Ez dabe alkarrizketa amaitu gura Urtzi Ortuzareri eskerrak emon barik; lehenago entrenatzaile moduan eta orain bigarren entrenatzaile lez, andrazkoen futbol talde honeri laguntzeko egin dauan lan gogorragaitik.

ikasi eta landu

euskara bizia

Arratiako AEK

Maila eta ordutegi guztiak
Autoikaskuntza

Agirre Lehendakaria 4, Igorre. 94 631 56 57

Garena ikasteko para entendemos pour se comprendre

eman izena
www.aek.org
902 362 294